



Arartekoaren 2018IR-2190-16 Ebazpena, 2018ko uztailaren 10koa, ikastetxe bateko instalazioetan amiantoa hauteman izanari lotuta Laudioko Udalak egindako jardunari buruzkoa.

Aurrekariak

- Kexagileak, zeinak Laudioko Latorro Ikastetxeko ikasleen guraso talde baten izenean jardun baitu, adierazi du herri-administrazio eskudunek esku hartu behar dutela ikastolaren eraikineko zenbait elementutan dagoen amiantoa hautemateko eta hura guztiz kentzeko.

Novotec enpresak 2013ko martxoan egindako txosten tekniko baten bitartez hauteman zen material arriskutsu hori eraikinean zegoela. Txosten horren bidez, ikastetxeko instalazioen diagnostia egin zen, eta hauteman zen amiantoa zutela (material hori toxikoa da, eta minbizia sor dezake).

Kexagileak idazkian adierazi zuen, ordutik hiru urte igaroak baziren ere, artean ez zela egin osasunerako arriskuen ebaluaziorik, ez eta mineral hori eskolatik guztiz kentzeko esku-hartze planik ere.

Interesdunak kontu hori salatu zuen Laudioko Udalean, hartu beharreko neurriak har zitzan eskatzeko, udal horrek eraikinen segurtasun-baldintzen eta osasungarritasunaren kontrolari lotuta zituen eskumenen baitan, hezkuntza- eta osasun publikoaren administrazioekin elkarlanean arituz.

Horrez gain, azaldu zuen zailtasunak zituela toki-administrazio horrek ikastolan amiantoa egotearen inguruan zituen dokumentuetako batzuk eskuratzeko (2001ean egindako obren eta prestatutako txosten teknikoen ingurukoa, eraikinaren azterketa teknikoaren txostenena eta Novotec enpresak urrian egindako txostenaren kopia).

- Kexa hau behar bezala izapidetze aldera, Arartekoak informazioa eskatu zion Laudioko Udalari instalazioetako amiantoa kentze aldera esku hartzeko eskaerari lotuta egindako izapideen inguruan.





Laudioko Udalak, ikastetxe horretako zuzendaritzarekin elkarlanean, arazoa konpontzeko egindako jarduketan inguruan kexagileari emandako erantzunen berri eman zion toki-administrazio horrek Arartekoari.

Kexagileak ikastetxean zegoen amiantoari buruzko informazioa eskatu zuen 2016ko irailaren 26an. Udalak adierazi zuen 2016ko irailaren 30ean kexagilearekin bildu zela, gai horren inguruko informazioa emateko. Ondoren, 2016ko urrian, Laudioko Udalak Novotec enpresa kontratatu zuen, ikastetxeko eraikinak lotzeko bideen fibrozementuzko estalkien egoerari buruzko txostena egin zezan. 2016ko urriaren 4an, beste informazio-bilera bat egin zen kexagilearekin.

2016ko urriaren 26an, Arabako Hezkuntza Ordezkaritzak Laudioko Udalari eskatu zion ikastetxearen hego-ekialdeko markesinetako estalkiak kentzeko eta berriak jartzeko proiektu bat onar zezala.

2016ko azaroan, Laudioko Udalak Novotec-en bigarren txostena -eraikinak lotzeko bideen fibrozementuzko estalkien ikuskatzeari buruzkoa- jaso zuen. Estalkietako amiantoaren karakterizazioari dagokionez, Novotec-en bigarren txostenak ezartzen du ez dela birrinkorra, hau da, jatorrizko formatuan egonkor mantentzen dela; hortaz, ez da arriskutsua betiere ez bada manipulatzen eta kontserbazio-egoera onargarrian badago, eta hala da ikastetxeko estalkien kasuan. Material hori aire zabalean dagoenez, zailagoa da ustekabeen askatutako zuntzak zintzilik geratzea, eta horrek murriztu egiten du hura inhalatzeko eta haren eraginpean egoteko arriskua. Nolanahi ere, txostenean proposatu da ingurunearen laginketa bat egitea estalkiak kaltetuta dituzten eremuetan, aldi berean behin materialaren kontserbazio-egoeraren kontrolak burutzea, eta hura kentzea planifikatzea, 2001eko abenduaren 7ko aginduarekin bat etorriz -izan ere, instalazioa noiz eraiki zen aintzat hartuta, materialaren bizitza baliagarria amaitzeaz da, hura 50 urtekoa baita, gehienez ere-.

Laudioko Udalak 2016ko azaroaren 25eko ofizioa helarazi zion kexagileari, eta, horrekin batera, eraikinen estalkiak eta fatxadak konpontzeko proiektuaren eta Novotec enpresak egindako bigarren txostenaren kopiak ere igorri zizkion.

Halaber, Laudioko Udalak, Arartekoari helarazitako komunikazioan, adierazi zuen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hala eskatuta, konpromisoa hartu zuela, 2017an, HLHiko pasabide batean zeuden jardinerak eta ikastetxearen hego-ekialdeko markesinetako estalkiak kentzeko.





Erreklamazioan azaldutako kontuak eta administrazio horrek emandako erantzuna baloratu ditu Arartekoak, eta, jarraian, kexa-espediente honen gainean egindako gogoeten eta ateratako ondorioen berri ematen du.

Gogoetak

- Erreklamazioaren xedea zen neurriak hartzea, ekiditeko Laudioko Latorro Ikastetxe publikoaren instalazioen erabiltzaileak amiantoaren eraginpean egotea, airera igorritako amianto-zuntzak inhalatzeagatik.

Udal-administrazioak interesdunei jakinarazi zien zer proiektu adostu ziren amiantoa kentzeko, eta zer txosten tekniko bildu ziren lotura-bideen estalkietako fibrozementuzko plaken egoerari buruz. Halaber, HLHIko pasabide batean zeuden jardinerak eta ikastetxearen hego-ekialdeko markesinetako estalkiak kentze aldera aurreikusitako neurrien berri ere eman zien.

- Lehenik eta behin, asbesto edo amianto delako mineralaren kutsadura kontrolatzeari dagokionean herri-administrazioen esku-hartze eremua erregulatzen duen araudia aipatu beharra dago.

Batez ere Europar Batasuneko legeriak sartu du gure ordenamendu juridikoan mineral horren merkaturatzearen erregulazioa, bai eta erabilera-araubidearena, atmosferara igorritako isurketen ingurumen-kontrolarena edota horren tratamenduarena ere, hondakin gisa deuseztatu behar den kasuetan.

Martxoaren 20ko 78/319/CEE Zuzentarauak substantzia toxiko eta arriskutsutzat jo du amiantoa (hautsa eta zuntzak). Martxoaren 19ko 87/217/CEE Zuzentarauak otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretua - amiantoak ingurumenean eragitea prebenitzekoa eta eragin hori murrizteko onetsi zuen.

108/1991 Errege Dekretuaren 3. artikulua botere publiko eskudunei agintzen die amiantoak atmosferara igorritako isurketak eta amiantoaren hondakinak jatorrian murrizteko, edo, ahal den neurrian, saihesteko. Horretarako, atmosferaren kutsadurari, isurketei eta hondakinei buruzko sektore-erregulazioetan ezarritako teknikak eta prozedurak aplikatzearen alde egiten du. Jada badauden instalazioetan, horietan amiantoa badago, ingurumena babesteko legeria aplikatu behar da, kontuan hartuta, besteak beste, instalazioaren ezaugarri teknikoak, erabilera-indizea eta instalazioaren



hondakinen bizitza, bai eta instalazioaren isurketa kutsakorren izaera eta bolumena ere. Horrelakoetan, atmosferara igorritako amianto-kontzentrazioak ezin izango du gairitu gehieneko balioa, hots, milimetro kubikoko 0,1 miligramo (isuritako airearen metro kubiko bakoitzeko dauden amianto miligramoak).

Bestalde, 1999ko uztailaren 26ko 1999/77/CE Zuzentarauak mugatu egin zituen amiantoaren merkaturatzea eta erabilera. Zuzentaru horrek ezartzen du amiantoa edo amiantoa duten produktuak erabiltzeak, mineral horrek zuntzak askatzean, asbestosia, mesotelioma eta biriketako minbizia eragin dezakeela. Hortaz, zuzentaru horren arabera, ahalik eta murrizketa zorrotzenak ezarri behar zaizkio amiantoaren merkaturatzeari eta erabilerari.

Gauzak horrela, zuzentarauak estatu kideei agintzen die amianto-zuntzak erabilia egindako produktuak merkaturatzea eta erabiltzea debeka dezaten. Zuzentaru 2001eko abenduaren 7ko aginduaren bidez ezarri zen. Agindu horrek mugak ezarri zituen substantzia eta prestakin arriskutsu jakin batzuk merkaturatzeko eta erabiltzeko. Agindu hori indarrean jarri aurretik instalatuta zeuden amianto-zuntzak dituzten produktuak erabili ahal izango dira horiek kendu arte, edo haien bizitza baliagarria amaitu arte.

- Hori horrela izanik, egungo lege-esparruak amiantoa merkaturatzea eta erabiltzea debekatu ondoren, materialak tratatzeko eta kentzeko zein material hori duten eraikinak -1960tik 1984ra bitartean eraikitako eraikinak, batez ere- eraisteko lanak daude, nagusiki, amianto-zuntzen eraginpean.

Hori dela eta, langileen segurtasunerako eta osasunerako araudiak erregulatu ditu zer prozedurari jarraitu behar zaien amianto-zuntzen edo mineral hori duten materialen eraginpean dauden edo egon daitezkeen langileak dituzten operazio eta jardueretan esku-hartzeko. Horixe da indarrean dagoen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuaren kasua, horren bidez ezarri baitira amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikagarri zaizkien gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak.

Xedapen horrek ezartzen du zer prozedurari jarraitu behar zaion eraberritze-obrak egin behar diren eraikinetan, amiantoa egon daitekeen susmorik txikiena ere baldin badago. Horrelakoetan, eraispen- edo mantentze-obrei ekin aurretik, enpresariak dagozkien neurri guztiak hartu beharko dituzte, identifikatzeko zer materialek izan dezaketen amiantoa.



Horretarako, mineral horren identifikazioa jaso beharko da lan-administrazioak onetsi beharreko lan-egitasmoan (segurtasun- eta osasun-azterketan, edo, hala badagokio, arriskuen ebaluazioan). Obra horiek enpresa espezializatuek egin beharko dituzte, hau da, amianto-arriskua duten enpresen erregistroan izena emandako enpresek.

Kasuan-kasuan hartu beharreko neurriak amianto-motaren eta haren egoeraren arabera dira (esku-hartzerik ez, egonkortzea, konfinamendua edo kentzea), eta materiala duen instalazioaren titularra da horien erantzule. Kasu horietan, lan-osasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiaren arabera ebaluatu behar dira egin beharreko esku-hartzeak, eta udalaren gaindiko eremuak du horretarako eskumena.

- Eraikinen kontserbazio-egoera dela-eta, udal-administrazioek eskumena dute horien jabeen segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzak behar bezala kontrola ditzaten exijitzeko.

Hirigintzako legeriaren eta jabetza-eskubidearen arabera, jabeek, legez, beren lursailak, eraikinak eta instalazioak segurtasun- eta osasungarritasun-baldintza egokietan izateko betebeharra dute.

Osasungarritasun-baldintzei dagokienean, erabiltzaileek osasun-egoera egokia izan dezaten beharrezkoak diren baldintzak bete behar dira. Horretarako, bermatu egin behar da eraikinaren egoerak ez dituela higiena edo osasun-baldintzak arriskuan jartzen. Eraikuntzaren Kode Teknikoa onesten duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak osasungarritasun kontzeptuaren barruan sartzen du eskakizun hau: *"muga onargarrietaraino murriztea erabiltzaileek, eraikinen barruan eta ohiko erabilera-baldintzetan, proiektuaren, eraikuntzaren, erabileraren eta mantentzearen ezaugarrien ondorioz, eragozpenak edo gaixotasunak jasateko arriskua, bai eta eraikinak narriatzeko eta eraikinek inguru hurbileko ingurumena narriatzeko arriskua ere"*. Eraikinaren elementuak ez mantentzeak edo horiek hondatzeak eragin dezakete osasungarritasun-egoera hori. Jabetzaren mantentzerik ezak erabiltzaileen baldintzen degradazioa ere ekar dezake, eta arriskuan jar dezake osasun publikoa; horrelakoetan, administrazioak esku hartu behar du.

Osasungarritasun kontzeptu horren arabera, udal administrazioak noiznahi agindu behar du legezko kontserbazio-eginbehar hori beteko dela bermatzeko behar diren obrak egin daitezela.





Horiek horrela, amianto-zuntzen eraginpean egotea, horiek inhalatzeagatiko osasungarritasun-arriskua dagoen lursailetan, eraikinetan edo instalazioetan, aukera ematen dio administrazioari esku hartzeko eta bermatzeko eraikin horietan betetzen direla horiek bizigarri izateko edo erabili ahal izateko osasungarritasun-baldintzak.

Horixe aurreikusi du euskal hirigintza legeriak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 199. artikulua bidez. Legeria horrek - zehazki, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 199. artikulua, 203. artikuluaekin lotutakoak- ezartzen du, toki-administrazioek exekuzio-aginduak emateko betebeharra dutela, lursailen eta eraikinen jabee horiek osasungarritasun-baldintza egokietan edukitzeko betebeharra ezartzeko.

Kasu honetan, udal-administrazioaren eskumena da betebeharra betetzen dela bermatzea, dagokion espedientearen bidez, eta eraikinak beharrezkoak dituen exekuzio-aginduak ematea, txosten teknikoak bildu ondoren.

Hirigintzako ahalmen horien osagarri, udalek hiri-osasunaren eta -higienearen arloko eskumenak ere badituzte, jabeei eskatu ahal izateko higiezina kontserbatzeko betebeharrak bete ditzatela. Eraikinen eta jendea bizi eta egoten den tokien osasun-kontrolerako eginkizunak betetzeko esku hartzen dute udalek. Eskumen hori Ingurumen Osasunaren Ikuskapenari buruzko 14/1986 Lege Orokorraren eta Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko 8/1997 Legearen ondorio da. Udalek osasungarritasun publikoa babesteko eskumena erabiliz esku hartu behar dutela dio, halaber, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2.H) artikulua.

Horren ondorioz, udal-administrazioak esku hartu beharra dauka amiantoaren kontserbazio-egoeraren ebaluazioa egin dadin exijitzeko, eta, erabiltzaileen osasungarritasunerako arriskuren bat hautematekotan, dagozkion neurriak hartzeko eskatu behar du, kasuan kasuko kaltea ekiditeko edo arriskua prebenitzeko, laneko legerian jasotako neurriekin bat etorriz.

Kexan aipatutako datuak, administrazioek emandako informazioa eta azaldutako gogoetak kontuan hartuta, honako ondorio hauek atera ditugu:





Ondorioak

- Arartekoak bere esku-hartzea amaitu du, egiaztatu baitu zer jarduketa egin dituen Laudioko Udalak eskatutako dokumentazioa eskuratzeko eskaerari erantzute aldera. Dokumentazio horren bidez, interesdunek jakin dute zer udal-proiektu adostu diren ikastetxearen eraikinetik amiantoa kentzeko, zer ondorio atera diren eraikinak lotzeko bideen estalkietako fibrozementuzko plaken egoeraren inguruan, zer gomendiori jarraitu behar zaien horiek aldiari behin kontrolatzeko eta zer planifikazio egin den haien bizitza baliagarria amaitzean horiek kentzeko.
- Nolanahi ere, Arartekoak eraikin baten instalazioetan amiantoa dagoela hautemanaz gero aplikatu beharreko ondorio batzuk gogorarazten ditu.

2001eko abendutik dago debekatuta amiantoa merkaturatzea eta erabiltzea. Debeku hori ezarri aurretik eraikitako higiezinetan amiantoa baldin badago, ekintza-plan bat abiarazi behar dute administrazio eskudunek, eraikin horiek erabiltzeagatik edo horiek bizigarri izateagatik amianto-zuntzen eraginpean egoteak ekar ditzakeen osasunerako arriskuak prebenitzeko, harik eta material hori kendu arte edo haren bizitza baliagarria amaitu arte.

Kasuan-kasuan hartu beharreko neurriak amianto-motaren, birrinkortasunaren eta kontserbazio-egoeraren arabera dira. Material hori dagoen instalazioaren titularra da kasu bakoitzean ezarri beharreko neurrien erantzule.

Eraikin bateko elementu edo material jakin batzuek amiantoa izateak osasungarritasunari eragin diezaiokeen eta osasun publikorako arriskutsua izan daitekeen kasuetan, udal-administrazioek hirigintza- eta osasun-arloko eskumenak dituzte, arriskuak ebaluatzeko azterketa, bai eta, hala badagokio, lan-egitasmoa ere, aurkezteko eskatzeko. Kasu horietan, lan-osasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiaren arabera ebaluatu behar dira egin beharreko esku-hartzeak (esku-hartzerik ez, egonkortzea, konfinamendua edo kentzea), eta lan-administrazioak du horretarako eskumena.

